



2006KO OROITIDAZKIA

Lehiaren Defentsarako organoak abian ipintzea

2006ko martxoaren 1ean ofizialki jardunean jarri zen Lehiaren Defentsarako Zerbitzua, apirilaren 12ko 81/2005eko Dekretuaren bitartez sortutakoa, hain zuzen. Zerbitzu hau lau teknikaririk osatzen dute (Zuzenbidean lizentziatu 2 eta Zientzia Ekonomikoetan lizentziatu 2) Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzari otsailaren 1ean atxikitakoak, hilabete hau Zerbitzuaren eraketarako eta antolaketarako aritu direnak.

Lehiaren Defentsarako Zerbitzuaren jarduerak

Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak

- 7 espediente izapidetu du, horietatik 5 zigortzekoak eta 2 zaintzakoak direlarik.

Zigor espedienteetako izapidetzeak honako hau ekarri zuen:

- Artxibatzea arau-hausterik ez hautemateagatik: 1
 - Estatuko Zerbitzura eskumena berari zegokiolako: 2
 - Instrukzioa amaitua eta Euskal Auzitegira bidaltzea: 1
 - Instrukzioan: 1
- Bi azterlan prestatu ditu, juridiko-ekonomikoak eta lehia alorrekoak, farmazia bulegoei eta mediku aseguru pribatuei dagozkienak.
 - *Euskal Osasun-sistemako hornikuntzak eta azpiegiturak egokitu eta modernizatzeko Planari eta Gizarteratzeko II. Euskal Planari* buruz txostena eman du.



Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzua

- Lanean aritu da funtzio hau “lehiari eragiten dioten arauen aurreproiektuei buruz txostenak ematea” delako eginkizuna gauzatzeari dagokionez
- Zerbitzua ezagutarazteari garrantzia eman dio eta horretarako kontsumitzailearentzat liburuxka bat prestatu du kontsumo alorrean diharduten erakundeen bitartez banatu duena.
- arreta berezia eman dio Lehiaren Defentsarako Lege Proiektuari eta horretarako beharrezko iradokizunak eman ditu baita bileretan (prestatzeko helburuz izandako barne bilerak eta Estatuko Zerbitzuarekin) parte hartu ere.

Prestakuntza eta lankidetzak hainbat erakunderekin.

Zerbitzuak bilerak egin ditu bai Estatuko Lehiaren Defentsarako Zerbitzuarekin bai Kataluniako auzitegiekin bai Frantziako Conseil de la Concurrente delakoarekin baita ELGArekin ere. Bilera horiek Euskal Zerbitzuko kideen prestakuntzarako laguntza eman dute eta prestakuntza horren osagarriak izan dira Lehiaren Defentsarako Eskola Iberoamerikanoaren V. jardunaldiaren bitartez izandako jardunaldiak, Euskal Auzitegiak, Zaragoza eta Las Palmaseko unibertsitateek eta Estatuko Lehiaren Defentsarako Auzitegiak emandakoak, hain zuzen.

Halaber, Euskal Auzitegiarekin batera, Zerbitzuak parte hartu du Lehiaren Defentsarako Kontseiluan eta Lehiaren Defentsarako Organoen arteko Lankidetzarako Sarean kide eraginkorra izan da.